

MUSEO BATERAKO DUIN DAN KOADROA (FRANTSESTETIK SALBATUTAKO KOADRO BIKAINA)

1.- Frantsestearen ondoriak

Gauza jakina danez, XIX. gizaldirarte Ordena Erlijiosoak, nahiko aberats ziran ondasun materialetan: Eleiz etxe, solo, bitxi, oleo, eskultura, eleiz jantzi, zilarrezko eleiz tresna, liburutegi, artxibo eta abarretan.

Baina, XIX. mendean, egoera sozial-politiko eta erlijiosoa gaiztoagotu egin zan, hainbat ondasun harrapatu, desamortizatu, kendu eta desagertu ziralarik. Aipagarriak dira Ilustrazioaren zenbait ahalegin, bai eta Napoleonek eta frantsesek euren onerako egindako lapurretak eta hondamendiak ere. Kadizeko Gorteak eta Trienio Liberala ere helburu bera lortu nahian, lege, arau ugari emoten saiatu ziran.

Aldi eta urte honeetan egindako ahaleginak, 1839.eko esklaustrazio handiaren aurrerakin edo saialdia izan zirala dirudi. XIX. gizaldian, Espainia guztian zehar, 324 komentu hustu beharrean izan ziran, euren ondasunak, gobernu ezbardinak konfiskatu eta bereganatuaz.

Frantseste honetako esklaustrazio urteak (1909 – 1813) gitxi izan baziran ere, hondamendiak, lapurretak, bizi-biziak izan

ziralako eta datuak nahiko ugari ditugulako, urte honeetan gertatutakoa adierazgarritzat emon daikegu. Manuel Revuelta Gonzalezek, J. Mercader Ribaren balorazioak onartzen ditu, ondorengo aipamen honetan :

“Es difícil calibrar el volumen real de las ventas efectuadas en la desamortización “josefina”; las listas que aparecen en la Gaceta, completadas con otros documentos, pueden ofrecer una primera pista para el estudio de la geografía y de los beneficiarios de aquella desamortización. Esta comenzó en enero y febrero de 1809...”¹.

Aita Silveriok, bere “Historia del Carmen Descalzo”² idazkian, 1742 – 1812 urteen artean izan zan Frantsestearen jazarpenak eta hondamendiak kontatzen ditu, Espainia guztiko zenbait komentutan izandakoak. Aita Silveriok, historialari ospe eta izen handia izan dau Eleizan eta Karmengo Ordenan, baina Markinako komentuan, Frantsestean izandako arpilaketak, lapurretak, hondaketak kontatzean, Aita Bartolomerengana jotzen dau; beraz ez dau ekarpen berezirik egiten eta Aita Bartolomek dinoana bilatzera, bultzatzen gaitu.


Aita Bartolome Santa Teresa sermolari ospetsu baizen euskal idazle bikaina da, eta gure gaiari dagokionez gorengo mailako kronista legez agertzen jaku 1815.eko azaroko idazki barriemoile baten; aldi haretako datuak biltzen ditu, era berezian eta bizian idatziaz.

“Apuntaciones de lo ocurrido en el convento de los Carmelitas Descalzos de la Villa de Marquina desde el año 1808 hasta el de 1815”³ izenburua dau kronika honek. Bertan eleizako eta ko-

¹ Manuel Revuelta González, La Iglesia española ante la crisis del Antiguo Régimen (1808-1813). Historia de la Iglesia en España. 5.t. Madrid, 1979, 22.or. (B.A.C.).

² Silverio de Santa Teresa, Historia del Carmen Descalzo..., 12.t., Burgos, 19XX, 857-860.or.

³ Julen Urkiza, Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak. Larrea-Zornotza, 1992, 752-768.or. (Ed. El Carmen).



mentuko gauzen eta tresnen kontaketa zehatza emoten dau, zenbat tresna eta nora bialduak izan ziran zerrendatuaz: 12 erretaula eta 11 mahai bialdu ziran Xemeingo parrokiara; altara bi Etxebarriako San Andres parrokiara; torreko kanpaiak, Bilbora; organoa, Mundakako Eleizara. Artxiboan kalte izugarria egin zala adierazten dau, zati garrantzitsu bat betiko galdurik. 1811.eko martxoaren 14 eta 15ean salgai jarri ziran komentuko hainbat gauza, balio handiko gauzak ez zirala oharrarazten dau. 1813.ean, komentua egoera negargarrian aurkitzen zala diño: Hormetan zuloak alde guztietan, eskaillerak apurtuta, komentuko barru eta kanpo aldeak hondakin eta zikinkeriaz beterik.

Frantsesen zapalketa amaitu ondoren, 1814.eko urtarriletik aurrera, Karmengo Amaren irudia, erretaulak, organoa, kanpaiak eta abar berreskuratu eta euren egonlekuetara eta altare-tara itzultzea lortu zala, azpimarratzen dau.

Zenbat ondasun galdu, desagertu, hondatu ziran, frantses harraparien eta honeen laguntzaileen erruz, ez dago kontaketarik, baina orain deskribatzera noan oleo-koadroa salbatu egin zan, eta hori da orain erabakiorra eta azpimarragarria.

2.- Kaspar Jasper Opstal edo Gaspard Jacob van Opstal, "Gaztea".

Deskribatzera noan "JESUS GURUTZEKOA" oleo-koadroaren pintatzailea, flamendarra zan Anberesen jaioa, 1654.urtean, eta uri horretan bertan hil egin zan 1717. urtean.

OPSTAL, Kaspar Jasper, edo Gaspard Jacob Van, "Gaztea", izenez ezagutua eta ospetsu egina. Bere aita, OPSTAL Kaspar Van pintatzaile eta maisuarengandik ikasi zituan marrazki, mar-go, argi eta beste pintura-artearen ezkutuko guztiak. Pintura adituen iritziz Opstal Kaspar "gazteak", bizi zan garaian, bere aitak baino entzute edo arrakasta handiagoa izan eban eta gaur egunean ere, onespen zein entzute bikainagoa dauka.

Haren maila eta maisutasuna beraren herrikideen artean zelakoa zan ezagutzeko, gogoan izan daigun, Rubens pintatzaile handiaren "Gurutzetik Jaistea" koadroaren kopia, Anberesko katedralean egiteko proposamena leporatu eutsela. Gainera, Opstalen ospe handiaren adierazgarri dira bere 85 ikasle. Ikasle honeen guztien laguntzaz baliatzen zan bere pintura-eskari eta bezero ugarietarako erantzuteko.

Bestalde, onespene eta begirune berezia dauka Opstal "Gazteak", erlijiozko gaiak erabiltzen, artxibok dinoenez: "Il jout, comme peintre de sujets religieux, d'une réputation considérable eta employa pour l'exécution de ses commandes un nombreux personnel"⁴.

Opstal "Gaztearen" koadrorik aipagarrienak ondorengo leku eta museoetan aurkitu daitezke: Anberesko Katedralean, Museoan eta Udaletxean; St. Omer Katedralean; Darmstadt galerian; eta Brunswick eta La Hayeko museoetan.

Markinako Komentuko Eleizan aurkitzen dan "JESUS GURUTZEKOA" pintura, Opstal Kaspar Jasper "Gaztearena" da; koadroaren ezker angeluan agertzen da bere sinadura, beronen beste koadroetan agertzen dan sinadura berbera. Beste arazo bat izango litzateke pintura-ehuna oso-osorik, xehetasun guztietan, berea dan jakitea.

Azkenik, "JESUS GURUTZEKOA" koadro honen iraute-egoera ez dala egokia esan behar. Opstalen oleo koadro gehienak, aurreko prestatze-lan ez egokia eta okerra izan ebela, baieztatzen dabe azterlari guztiak, eta zoritxarrez, "JESUS GURUTZEKOA" koadro honek ere, barrizatzaileen premia izan eban, eta 1991. urtean "Equipo 7"k egokitu eta lehengoratu eban.

3.- "Jesus Gurutzekoa" koadroaren deskribapena:

"JESUS GURUTZEKOA" pintura hau Markinako Karmeldar fraideen komentuan dago, eta ondorengo zehaztasunak agertzen ditu:

Irudi mota: Ehunaren gainean oleoa; koadroaren neurriak: 227 x 156 cm. Gaia: Jesukristoren Gurutzeratzea; egilea: Opstal, Kaspar edo Gaspard Jacob Van, "Gaztea"; aldia: 1692. urtea.

Koadroak irudizatzen dauan gaia, Joan Ebanjelariak bikain deskribatzen dau ondorengo berba honeekaz: "Jesusen gurutzearen ondoan egozan haren Ama, haren amaren ahizta, Maria Kleoparena eta Maria Magdalakoa. Jesusek orduan bere Ama ikusirik eta maite eban ikaslea honen ondoan..." (Jn.19, 25-26).

Dakusgunez bost pertsonaien izenak esaten dira, baina ehun honetan lau irudizatzen dira, Maria Kleoparena falta dalarik. Jarraian, zehaztasunak eta lorpenik bikainenak azpimarratuko ditugu:

Jesukristo: Pertsonaia nagusiari dagokionez, Gurutzeratuaren irudia konposizioaren ardatz erdian, inguruan beste hiru irudiak nahiko simetrikoki dituala. Aurpegiak, hilik dagoela, erakusten dau: begiak eta ahoa itxi-



rik, burua eskuma aldera pixka bat makurtuta, heriotz zuritasunak eta baretasunak inguratzen dauala. Burua, arantzazko koro barik eta zauri ezkutuetatik odol tanta meheak isuriaz, buru inguruan zerutiar errainuak zerbait ikusaraziz.

Besoak eta eskuturrak tente eta gihartsu, gorputz soinaren zamari eutsiaz; eskuak untzez zulaturik eta odol ugari darioela. Gorputz enborra nahiko apolineoa, ez sendokotea, ondo orekatua baino. Bularreko zauria nahiko ikusten dala, odol tanta neurritsu batzuk emonaz, ezelan ere dramatismo barrokoan jausi barik. Iztar-hankak anatomia zehaztasunak mantenduaz eginak, zauri, ikutu, baltzune dramatiko barik, egoera orekatsu bat daukela. Oinak, eskumakoa ezkerrekoaren gainean jarririk, eta biak untze batek zulatzen dituela.

Garbitasun-zapia gerri inguruan, bere korapilo sendoak ziurtasunez finkatzen dauala, eta zapi ertzak haize zurrunbiloak, paper tolestua izango balitz bezela, astinduaz.

Andra Maria eskumaldean zutik agertzen da, Dolorezko Ama, baina emakume adoretu dala adieraziaz. Musua hori-zuri,



negarrez, bere ama-atseka-beari ozta-ozta eutsiaz, baina burua tente eta kementsu, gurutzatuaren aurpegi-irudiak erakarpen bereziz amaren aurpegian emoten dauala. Eskuetako, ezker-eskumako atzamarrak gurutzatuta presio handiz, esku horreetan bere sentsibilitate eta min guztia bateratuko balitu legez.

Joan ikaslea kokatzen dau ezker aldean. Hau ere zutik, eta une dramatiko haren tentsio guztia bere aurpegian eta batez ere iduneko giharretan

ikusarazten dauala. Gurutzatuarengana bihurturiko buruan eta aurpegian nahigabea ta mina bizi agerian ipiniaz. Beso-eskuak, eta hanka-oinak hazurtsuak eta sendoak, aldi haretako arrantzale gihartsu bati dagokionez, sarritan San Joan Ebanjelariari buruz erabiltzen diran klitxe eta estereotipo bigun-xamurretan jausi barik.

Magdalako Mariak ez dauka konposizioan beste hiru pertsonaien garrantzirik, eta hori jakinarazteko bere irudia bigarren planoan, argi-ilunean, dakusgu, margo ilunak erabiliaz. Halan eta guztiz ere, Magdalako Mariaren gurutzatuarenganako maitasuna eta sentikortasuna, buru-idun-lepo makurtasunaz eta begikera samurraz adierazten dau.



Lau irudi honeen inguruan, koadroko beste alderdiak bigarren mailan geratzen dira: Gurutz diseinua, gurutzea lurrean finkatzea eta kalbario mendi tontorra marroi-gaztaineraz irudiztatzen ditu, gurutzaren goialdeko "Inri" iragarki zuriak hausten dauala inguruko ilunpea.

Bestalde, koadroaren barnealdea ilunpetsu agertzen da, eskumaldeko goi parteko une ilunabartsua salbu.

4.- Koadroaren diseinua:

Lehenago esan danez, "JESUS GURUTZETOKA" pintura honen konposizioa nahiko sinplea da: Erdian Jesukristo gurutzeratua,

ezker-eskuman, simetrikoki, Andra Maria eta Joan Ebanjelaria, Magdalako Maria bigarren planoan jartzen dauala. Koadroaren barnea, iluntsua eta itzal handikoa izanik.

Pertsonaia guztien musu-aurpegiak ez dira judutarrenak, iparraldeko flamendarrenak baino, jantzi tankeran nahiko ondo egokitzen diralarik aldiko janzkeraz, hots, orain bi mila urteko, judutarren jantziekaz.

Koadroaren erdigunean, Jesukristo, erakarpen handikoa, dizditsua, ingurua argitzen dauana. Jesukristoren soina, espiral forman gorantz doan zutabe salomonikoa dirudi, forma bihurritz diseinatua.

Simetria aitatu dogu eta hortik itauna: orokorki zelako konposizioa agertzen dau? Triangularra, piramidala, klasikoa, ala barrokoan (ez daigun ahaztu 1692. urtean egina dala) ohizkoa dan gurutze aspadunarena?

Murillo, Ribera eta beste pintatzaile batzuen koadroetan jazoten dana, oleo honetan ere jazoten dala esan daikegu, hots: konposizio piramidala eta barrokoa, biak irudiztatzen jakuzala. Zergaitik ez diseinu klasikoa, Jesukristoren buruak trianguloaren erpina markatzen dauala, edo zergaitik ez gurutze aspadunaren diseinua, gurutzatuaren besoak asparen jarraipena Andra Mariarengan eta Joanengan aurkitzen dabela?

Bestalde, adierazgarria da Andra Mariak, Joan Ebanjelariak eta Magdalako Mariak Gurutzatuarenganako agertzen daben erakarpen zentrukidea, indar berezi, ezkutu batek, Gurutzatuarenganantz bultzatuko balitu legez.

5.- Koadroaren argi-margoak

Opstal pintatzaileak, ehun honetan argiaren eta margoaren erabilpen jakintsua eta maisuarena erakusten dau bai margoen konbinazioan, eta bai argiaz baliatzean.

Tenebrismo pixka bat ere badauala koadro honek baieztatu-ko neuke. Jakina danez, tenebrismoa: pertsonak eta tresnak barne ilunean aurkezten saiatzen da, antzerki bateko, argi foku bezelako argi zuzen eta biziak, errainutuaz eta lehen planora erakarriaz pertsonak, tresnak eta pertsonaien keinuak.

Koadro honetan, barne iluntsuan Jesukristok, Gurutzatuaren irudiak, dauka lehentasuna. Soin biloisian, marfil kolorea izate-ak, argitsu eta lehen planoan erakusten dau haren gorputza, inguruko hiru lekukoen eta ikusleko guztiaren arreta eta begi-kerak bereganatuaz.

Andra Maria eta Joan Ebanjelaria, Gurutzatuaren soina beze-la, zeharreko eta ezkerraldeko goi-argi horregaz baliatuaz, itsas urdin margoa soin gainekoan, more-gaztain margoa zaijan, eta hondar-okre kolorea buru-zapian Andra Mariaren jantzietan; Joan Ebanjelariaren apainduretan, barriz, gorrimin margoa soin-gainekoan eta marroi iluna zai luzean, dira margo bereziak.

6.- Koadroaren lorpenak eta balioak

Opstal artistaren oleo koadro honek benetan bikaintasun berezia daukala baieztatu daikegu, ehunaren konposizio oro-korra, marrazki ondo lortua, argiaren erabilpen egokia, margo-en konbinazio harmonikoa dira lorpenik aipagarienak.

Gainera, barroko estiloari dagokion errealismoa, benekota-suna, barru eta kanpoko dinamismoa, neurri orekatuan erabil-tzen ahalegintzen da, ertz-ertzeko barrokoaren dramatismoan, gehiegikeria nabarmenean, sentikortasun heroikoan jausi gabe. 1692. urtean, koadro hau egin zanean, arte joera, katolikoan artean, sentimendua sortzeko, errukia eta damua bizi-zoteko, biotz-barritzea bultzatzeko, Jesukristoren irudi dramatikoak eta hunkigarriak erabiltzen ziran: soin-haragi giharrak, zauri izuga-riak, odol, odolbatu, kolpe ikaragarriak, aho eta begi zirrara-tsuekaz baliatuaz, irudi hunkigarriagoak, sentikortasun bizi-agoa sortzen ebela.

Opstalen "JESUS GURUTZEKOA" koadro hau ez da barroko-barrokoaren parametro eta joera honeetakoa, alderantziz baino: Gurutzatuaren soina nahiko garbia, itxura ederrekoa, zauri eta odola neurritz eta zentzunez erabiltzen dituana, idealizazio klasikoaren ikutua ere agertzen dauana.

Ertilan honek kalitatez aparte, erlijio eta espiritu balioak ere baditu. Sinistedunaren bihotzean, onespina, otoitza, gogoeta, fede-zirrara sortzeko egokia. Beraz, Opstal "gaztea"ren *Gurutzeratze* eder-lan hau, benetan bikaina dogu, eta adituen pozerako, museo baten miresteko erakoa.

Jose Ramon Iturriaga Uriarte